

Umeen alfabetatzea. Gipuzkoa atzera geratuko ahal da?

Zeruko Argia, 365. zk., 1970-03-01: 7.

Euskera-lanetan gabiltzanok atsekabeak artzen ditugu ugari, baiña pozak ere bai. Hoietako bat lehengo batean artu nuan: Iñaki Goikoetxea iosulagunak *Kili-kili, lan ta lan* egiten duan gizona auzkeztu ziranean.

Il honetako ZA batean aita Goikoetxea berak idatzitako zerrenda bat agertu zan, baiñan ala ere zerbaitxo bat esan nahi nuke: batere zaratik gabe egiten ari diran lan hauxe euskeraren etorkizunerako lan sakon eta aberatsa dala.

Ara lan honen mamia:

Gure umeak ahal dugunean ikastoletara bialtzen ditugu; baiña ikastola hoietako asko zazpi edo amar urteraiñoko umeak bakarrik artzen dituzte; beste ume asko ta asko, ordaintzekorik ez dutelako edo ikastolak eroso ez dituztelako, euskal ikas-biderik geratzen dira. Ara emen euskera lantzeko alor ederra: euskeraz jakin arren euskeraz idazten eta irakurtzen ez dakiten analfabetoak. Arazo honeri zaiñetatik ekitea ta etorkizunez aberatsagoa ta errezagoa. Baiña nola ekin?

Emen dator *Kili-kili* lanera.

Kili-kili margoz oso egoki irarria dagon kuaderno bat da. Zazpi urtetik amalau urteraiñokoentat egiña. Euskal gramatika, literatura, jeografia, aritmetika, erlijioa, kondaira ta abar idatzita dauzka. Pittinka, umeei (eta irakasle gabe!) eman behar zaion bezela. Umeak texto txiki-txiki hoiek orretarako dauzkan toki berezietan *egunero zazpi lerro* berak *kopiatu* behar ditu. Ala, konturatu gabe irakurtzen eta idazten ikasten ari da. Bi illabetetik bein kuaderno bete biali ta berria artzen du umeak.

Baiña nork jarriko du umea berez lanean?

Bai, umea ez da utsean lanean jarriko. Ba daki, ordea, lan hau zintzoki egin eta kuadernoa Bilbora bialtzen duanean, bere puntuekin saritua izango dala; uts gutxi, puntu asko; utz asko, puntu gutxi; baiñan kopiatze-lan hau errex-errex baita, *arretaz* egiten ba da; ta arretaz egiten dan lanak *asko erakusten baitu*. Orretarako, Bilbon irakasle-ekipo batek egiten ditu korrekzio lan hoiek; ta ba daki umeak, puntu gehien irabasten dituzten 150 ume (ez dira bi ume!) iru eguneko exkursio batekin sarituak izango dirala; igez, Araba ezagutzera joan ziran autobusean iru egunerako, ostel, ostatu ta guzi; aurten: Naparroa ezagutzera joango dira beste iru egunerako.

Bizkain asi zan lan hau, ta igez bi milla (2.000) ume orrela euskeraz irakurtzen eta idazten ikasiak dira; ta aurten ere jarraitzen dute, ta datorren urtean ere jarraituko dute askok, 14 urte bete arte. Baiñan aurten Bizkaiko 2.000 umeak 4.000-raiño geitu dira!, ta Naparroan iru milla (3.000!) apuntatuak dira aurten lanean asteko. Ba ahal da lan ederragorik? ara 7.000 ume etxean bertan, iñora atera gabe, alfabetatzeko bidea arkitu.

Gipuzkoa daukagu oraindik geldik.

Bizkaiko gastuk bertako industrialak-edo ordaintzen ari dira. Naparrokoa, berriz, ainbeste lan egiten ari dan "Príncipe de Viana" erakundeak artu du diru-kezka hau bere

kontu. Ta Gipuzkoan zer? Ez ahal dago emen lan hau zuzentzeko bidea arkituko duan iñor? Batetik dirua emango duana arkitu behar da, noski, baiñan hori lortzeko Gipuzkoan komisio bat izentatu behar da, ta komisio horretako gizon edo emakumeak falta dira. Berez, Tolosa ta Zarautz, Amezketeta ta beste erri batzuetatik *Kili-kili* eskatzen asiak dira, baiña Gipuzkoa osoan zabaldu behar dan lana da hau. Argitxo hau irakurrita, ez ahal da iñor kezkatuko?

Norbaitek lan hau asi nahi ba du, idatzi dezala ZA-ra.

Kuadernoak gipuzkeraz egiñak daude; zabalkunde lan hau asteko zai dago egillea.